

## Gabriel Arestiren buruan, euskara ikasteaz eta elebitasunaz.

Itziar Laka

Euskal Herriko Unibertsitatea

### 1. Aresti euskaldunberri

Arestik bigarren hizkuntza zuen euskara, gaztelania lehena. Hari horri helduta, azken urteotan jakin izan ditugun zenbait berri azaldu nahi dizkizuet, hizkuntzek burmuinean egiten dituzten kiribil eta jokoen inguruan. Asko da ez dakiguna, baina dakigun apurrari guztiz jakingarria deritzot, batez ere hizkuntza gune duen euskaldunon elkartearantzat.

Hau idazten nabilela, ama-hizkuntzaren nazioarteko egun bat badela jakin dut, otsailaren 21a hain zuzen ere. Gehienontzat, amaren sabelean entzuten genuen marmario bustia da ama-hizkuntza. Gabriel Arestik hizkuntza zurtz jaio zela sentitzen zuen; amak hitz egiten zion gaztelaniari arrotz iritzi eta euskararen bila abiatu zen, hura baitzen bere bihotzeko ama-hizkuntza. Arestik bezala, beste askok ekin diote bidaia horri, eta euskararako ibilbidea egin duten euskaldunberri guztiei zor diegu, neurri handi batean, gaur euskara inoiz baino jaioberri gehiagoren ama-hizkuntza izatea.

Bada euskararen nazioarteko eguna, bada ama-hizkuntzaren nazioarteko eguna. Ez dakit egun horiek ezertarako balio ote duten, baina egutegiko santuen lekua betetzera badatoz, zergatik ez, lehenbailehen, euskaldunberrien nazioarteko eguna? Inon irakurri izan dut *euskaldunberri* hitza ezabatu egin behar genukeela hiztegitik, iraingarria dela<sup>1</sup>. Niri, iraina baino areago ohorezko gradua begitandu izan zait beti. Zor diegunagatik balitz, udaberriaren hasiera izendatuko nuke nik *euskaldunberrien nazioarteko eguna*, eta santuren baten ordezkorik aukeratzekotan, *Gabriel Aresti euskaldunberrien nazioarteko eguna* izendatuko nuke, bai horixe.

---

<sup>1</sup> Adibidez, Ramon Etxezarretak *Diario Vasco*-n, "Intentaremos desterrar el término euskaldunberri de la jerga de los vascos." 2013 urriak 10

Egokia begitantzen zait, beraz, Arestiren aitzakiarekin euskaldunberriei egin nahi niekeen omenalditxo hau ama-hizkuntzaren egunean idazten ibiltzea. Gabriel Arestirekin batera, hainbat eta hainbat euskaldunek berariaz egin baitute euskara beren ama-hizkuntza, jaio eta urte askotara.

Gabriel Arestiren inguruan hitz egitera nator, baina ez haren literaturaz. Gabriel Aresti, jakina denez, euskararen aktibista porrokatua izan zen, eta bere garaian barra-barra zebiltzan euskarari buruzko hamaika uste ustelen kontra lan egin zuen etengabe. Hizkuntzak egiten gaitu euskaldun, ez besterik, ongi zekien Arestik hori. Horregatik, hil ala biziko kontua zuen euskara berpiztea, erabiltzea, estandarizatzea, modernotzea, XX. menderako prest uztea. Hori ere eskertu behar baitiogu Arestiri; ez bakarrik utzi zigun literatur ondare oparoa, baita konplexurik gabe arnas hartzen duen hizkuntza eredua ere.

Gabriel Arestiren ama ez zen euskalduna, abertzalea izan arren. Aita, aldiz, euskalduna zen, eta frankista. Beraz, Aita zuen Gabrielelek etxean euskaraz zerbait zekien bakarra, etxean gaztelaniaz egiten bazen ere. Arestiren aitona-amona gehienak euskaldunak ziren, baina Gabrielelek ez zuen haiengandik ikasterik izan, umetan hil zitzaizkion. Hamabi urterekin hasi zen euskalduntzen, bera bakarrik, autodidakta gisa. Jakina denez, hauxe da hizkuntzak ikasteko modurik zailena.

Nola ikas zitekeen euskara garai haietan? Ez zen kontu erraza. Euskararen egoera larria zen, eta horrelako egoeretan maiz gertatzen denez, hizkuntza salbatu nahi zutenen artetik zetorren heriotz arriskurik handienetako bat. David Cristal hizkuntzalariak argiro azaltzen duen lege<sup>2</sup> heriotz arriskuan dauden hizkuntzek ez dute bakarrik kanpoko eraginei buruz kezkatu behar. Hiztun-elkartean beren burua aditu izendatzen dutenek kalte handiak eragin ditzakete, batez ere haien ideiak eta asmoak beldurraren gatibu badira. Adibidez, ohikoa da egoera larrian dagoen hizkuntza kristalezko kutxa batean gorde nahi izatea, Edurnezuri balitz legez. Kristal gardenezko kutxak hizkuntzaren aurpegirik ederrena erakutsi behar du, orbanik gabeko azal zuria, soineko brodatu landuenak. Edurnezuri-hizkuntza hori ez da hitz egiteko, mirestekoa baizik: kristalezko

---

<sup>2</sup> Cristal, David (2002) *Language Death*, Cambridge: Cambridge University Press.

ontzi gardenean biltzen diren hitzek munduko zaharrenak izan behar dute, ageri den gramatika logikoena eta erregularrena, dena txukun, dena zuzen<sup>3</sup>.

Hizkuntza garbitzeko lana hartzen dutenek ez dute noski garbitutakoa besteek zikintzea begi onez ikusten eta ondorioz, jendeak txarto hitz egitea da haien kezka nagusia, hiztunek hitza lokaztea. Ni ume nintzela, bazen etxeetan bisitak etortzen zirenean bakarrik erabiltzen zen sala bat, hornigarri ederrez jantzia, altzari onenekin, hauts motarik gabea. Garbizale gartsuek, Edurnezurik inguruan zituen ipotxak bailiran, hori egin nahi lukete galtzeko arriskuan dagoen hizkuntzarekin, mihiserik finenetan bildutako gorpu ederra munduari erakutsi: *hara, horra gure hizkuntza miresgarri eta perfektua. Hain da miresgarri eta perfektua, jende arruntak ezin baitezake behar bezala erabili*<sup>4</sup>.

Hamabi urte inguru zituen Gabriel Aresti umeak euskara ikasteari ekin zionean. Garai haietan ez zegoen euskalduntzeko modu errazik, eta kontuak zailtzeko, ez dut uste begi onez ikusten zenik ere. Euskara, zioten sasi-aditu batzuek, ezin ikasi amaren altzoan ez bazen. Baina Gabriel izeneko ume koskor hark ez zuen jaramonik egin. Bilboko *Euzkeltzale-Bazkunak* 1918. urtean argitaratutako *Método gradual para aprender el euzkera* liburua eskuetan hartu, eta lanari ekin zion. Izenburua bera gaztelaniaz zeukan euskara ikasteko liburuak, eta izenburuarekin batera ikasgai guztiak, orduan ohikoa baitzen euskarari buruz gaztelaniaz idaztea. Ezer baino gehiago erakusteko hitza zen euskara, ez egitekoa. Horren adibide, liburuaren atariak *Sabin'i* egiten dion laudorioaren zatitxo bat, ikasliburuaren euskarazko testu bakarretik hartua:

*Udabañi eguna zabaltzen yakubala, bixitz-bidera urten intxakigun, eta, alazkiñia lez, itz zoragañijaz, itz aberkoyaz geure begi edertzaliok argitu ta*

---

<sup>3</sup> Azkue gazteak 1891.ean argitaratutako *Euskal-Izkindea* da gurean sortu den kristalezko hilkutxarrik ederrena. Hortaz, ikus Laka, I. (1986) '*Euskal-Izkindeako* aditza. (Hiperbizkaieraren historiaz II)'. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XX-3, Donostia, 705-755 or.

<sup>4</sup> Rikardo Arregik arrazoi badu, eta beldur naiz horrela dela, ikuspuntu eta jarrera hauek bizirik diraute oraindik han eta hemen: "Iruditzen zait euskaldun askok euskara ez-normalizatu eta museokoa nahiago duela, eta ez hizkuntza arrunt, eguneroko eta normal bat (euskal prentsa idatziaren salmentari begiratzea baino ez dago). Bueno, aurten ere Gabriel Arestiri egin zaio omenaldia, disimulatzeko." Zirrikituetatik begira, *Deia*, 2014/08/06

*geure bijotz mañe zaliau berotu egin euzan. Zorigatxak jotako aberí edeñau erakutsi euskun; berau mañetako suba gure bijotzon ixijo ta bera gaizkatzeko ind'arra geure guramenan imiñi euzan; eta abendearen ele zaña goi-goraño jasoteko gaña piztu euskun.*<sup>5</sup>

Ez zen, ez, kontu erreza garai haietako euskalduntzea; liburuek erakusten zuten hizkuntza eta euskaldunek egiazki egiten zutena oso aldenduta zeuden. Liburuen euskara ikasiz gero, hizkuntza garbia bereganatzen omen zen, baina hizkuntza garbi horrek gaizkiulertu asko sortu behar zituen gero, benetako euskaldunen etxeetara joan eta euskaraz egiten ahaleginduta. Euskara *garbituak* eta euskarak talka egiten zuten:

"Arestik berak kontatzen zigunez, behin Debara joan eta bertako jatetxe batean *arrautza elia gaimelduta* eskatu omen zuen, arrautza frijitu pare bat eskuratu nahirik. Eta zerbitzariak honela erantzun omen zion: *Barkatu jauna, baina hemen ez dakigu alemanez.*"<sup>6</sup>

Euskara *garbitua* eta euskararen arteko talka horren ohiko ondorioa: agurrak euskara *garbituan* eta elkarrizketa gaztelaniaz.

Baina Gabriel txikiak aingeru indartsu baten izena zeukan, eta ez alferrik. Kosta ahala kosta, lortu zuen: euskaldun egin zen. Euskaldun berria, eta horrezaz gain, euskararen historian bere marka utzi zuen euskaldun berritzailea.

## **2. Hizkuntza bi buruan: on ala txar?**

Euskaldun heldu gehienok elebidun gara, mota ezberdinetako elebidunak: batzuek euskara dute nagusi, beste batzuek gaztelania edo frantsesa, batzuek hizkuntza biak ikasi dituzte haurtzaroan; aldiz, beste batzuek euskara nola ikasi zuten gogoratzen dute, edo nola ikasi zuten gaztelania edo frantsesa; badira ama hizkuntza euskara izan arren helduaroan gaztelaniaz edo frantsesez erosoago sentitzen direnak, ez dutelako euskara ia inoiz erabiltzen. Badira gaztelania edo frantsesa ama hizkuntza izan arren helduaroan euskara nagusi dutenak. Askotariko hizkuntza-

---

<sup>5</sup> Euzkeltzale-Bazkuna (1918) *Método gradual para aprender el euzkera*, Bilbo: Euzko-Argitaldaria

<sup>6</sup> Hizkuntza Politikarako Sailordetza, [www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/aresti.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/aresti.pdf)

soslaiak dira gurean, eta jakina denez gutako askok hirugarren hizkuntza bat ere badakigu, dela nazioartean erabiltzen den ingelesa, dela bestelako ama-hizkuntza bat<sup>7</sup>.

Hizkuntza asko dabilta gure elkartean, bai, baina muga politikoaren alde batean eta bestean hizkuntza handi bi badira, legez jakin egin behar direnak lurraldeko hiritarra izateko, eta hizkuntza txikiago bat, legeak behartzen ez duena. Zentzu horretan, mugaren alde bietan ematen den egoera, eskubide eta bermeei dagokienez, estatu hizkuntzen aldera lerratuta dago nabarmen, hori dena ondo dakigu.

Euskaldun helduok elebidun izatera behartuta gaude. Hori txarra al da? Ona al da? Hemen aurkez dezakedana baino perspektiba zabalago batean ebatzi behar litzateke kontu hori; nik neure lan-zokotik jakin dudana ekar dezaket eztabaidara, ez besterik. Lizardik amonari eskainitako hitzak datozkit gogora: *zenbaitek ondamendi baituten katea, lore-sorta bekizu goi-muñoak zear!*<sup>8</sup> Eta ez, ez dut elebitasuna heriotzarekin konparatu nahi, ez da hori Lizardiren hitzak hona ekartzera bultzatzen nauen zioa<sup>9</sup>. Legeak behartzen duen elebitasun hau, askoren iritziz euskararen hondamendia dena, gure gizarteari abantaila interesgarria eman diezaiokeen lore-sorta litekeela erakutsi nahi dizuet, horra Lizardiren hitzok elebitasunaren hariarekin nola lotuko nituzkeen nik.

Lore-sorta izan litekeen elebitasunaz gehien zabaldu den berria *elebidunen abantaila* deitu izan da, eta hitz hauek argia ikusten dutela puri-purian dabil kontu hau, ez bakarrik adituen eztabaidetan, baita prentsan eta gainerako medioetan. Zeri esaten zaio *elebidunen abantaila*? Hainbat ikerketa ezberdinetan aurkitu izan den efektu bati; elebidunak eta elebakarrak talde bereizietan banatu, eta hainbat ariketa eginarazten zaizkie. Ariketa horiek azkar burutu ahal izateko axolazkoa den

---

<sup>7</sup> Honi buruz, ikus adibidez Etxeberria Felix (2006) "Alumnos inmigrantes: ¿Dónde y cómo los escolarizamos?" *Euskonews*, [www.euskonews.com/0339zkb/gaia33905es.html](http://www.euskonews.com/0339zkb/gaia33905es.html)

<sup>8</sup> Lizardi, "Biotzean min dut" *Biotz-begietan* 1932.

<sup>9</sup> Bada konparazio hori egiten duenik. Azkenetako bat Vidal, Pau (2015) *El bilingüisme mata: Del canvi climàtic al canvi idiomàtic*, Barcelona: P Visions. Egileak eztabaidatzen duena ez da egoera kognitibo elebiduna, baizik eta Catalunyaoko hizkuntz-politikaren ondorioak. Elebitasun kognitiboa eta hizkuntz politika elebidunak bi kontu guztiz bereziak dira. Lehenengoari buruz dakigunak bigarrenean eragin izan behar luke, hori da hona ekartzen dudana gogoeta bat.

informazioari adi egon behar da, axolazkoa ez den guztia baztertuz. Eraitza gehien argitan, elebidunek milisegundo gutxi batzuk lehenago burutzen dituzte ataza hauek. *Tira, milisegundo gutxi batzuk baino ez?* Bai, milisegundo gutxi batzuk baino ez, kasurik hoberenean; baina gure burmuinaren denbora-neurri nanoetan, milisegundo gutxi luze da. Abantaila kognitibo honi buruz askoz gehiago ikasiko dugu datozen urteetan.

Gaur egun, hasierako lanek elebidun eta elebazarren artean aurkitu zuten alde hau noiz nola eta zergatik gertatzen den ulertzen saiatzen ari gara hainbat ikerketa talde. Gizartean eta antolamendu politikoan eraginik izan dezaketen aurkikuntza zientifiko guztiak bezala, elebidunen abantaila olatu baten irudira zabaltzen ari da medioetan: hasiera batean, aurkikuntza berria zela, munduko egunkari, aldizkari eta telebista ospetsuenek jaso zuten, baina oso modu gordinetan, gehiegikeriaz.<sup>10</sup> Hainbat lanek errepikatu zuten elebidunen abantaila hau, eta dakikezuenek, ikerketa esperimentalean efektuen errepikapena berebizikoa da. Errepikatzen (edo erreplikatzeko) ez den efektua ez da existitzen, eta efektuaren sendotasuna errepikagarritasunarekin lotu ohi dugu. Eraitza hau oso garrantzitsua da, eta eragin esanguratsuak izan ditzake hizkuntza eta hezkuntza politikan. Ez zuen bakarrik aurreko uste ustel bat desegiten, inolako ebidentziaren oinarririk ez zeukan elebitasunaren kontrako ustea, elebitasuna garapen kognitiboan oztopo zela zioena; uste hori errotik irauli eta elebitasuna hondamendi izatetik lore-sorta izatera aldatzen zuen. Kognizioaren goi-muinoetan barrena hegan egitea ahalbidetzen diguna.

Olatu handiak dira hauek, eta handiak izaki erresaka handia sortzen dute. Horregatik, elebidunen abantaila hau egiazkoa ez dela zabaltzen hasi da orain medioetan, han hemenka<sup>11</sup>. Zergatik? Badirelako efektua aurkitzen

---

<sup>10</sup> Ikus bitez esaterako “¿Por qué los bilingües son más inteligentes?” (La Vanguardia, 2012), “El bilingüismo mejora la atención” (El País, 2007), “El bilingüismo protege el cerebro” (El Mundo, 2014), *The New York Times*, *The Economist*, eta beste hainbat mediotatik hartutako informazioa erabilia.

<sup>11</sup> Ikus, adibidez, [www.sciencedaily.com/releases/2014/12/141205124355.htm](http://www.sciencedaily.com/releases/2014/12/141205124355.htm), eta hurbilago, blogferaren munduan: Bilingüismo y sus ventajas: ¿Exageración científica? Otsailaren 26a 2015 [rasgotatente.es/bilinguismo-exageracion-cientifica/](http://rasgotatente.es/bilinguismo-exageracion-cientifica/)

ez duten ikerketak ere. Denborak eta lanak erakutsiko digu errepikagarritasuna edo errepikagarritasuneza zeri zor zaion. Artean, on da kontuan izatea inork ezin izan duela erakutsi elebitasunak buruan kalte egiten duenik, eta ezer aurkitzekotan, abantaila bat aurkitu izan dela orain artean.

Badira abantaila gehiago, eta horiek ere ondo aztertzea komeni liguke, gurea bezalako gizarte bati asko inporta behar baitzaio honen inguruan egiten den lanaren abangoardian egotea, eta beste inork dakien adina edo gehiago jakitea. Adibidez, Alzheimerrak jotako gaixoen artean, bizitza guztian zehar elebidun arituak direnek lauzpabost urte beranduago erakusten dituzte amiloideen gehiegizko jalkinek (hori baita Alzheimerra azken batean) sortutako sintoma latzak: memoria, hizkuntza eta nortasunaren galera. Gaixotasuna aldi berean abiatuta, elebidunek urte batzuk irauten dute ageriko kalterik gabe. Nonbait, elebitasunak gotorleku bat eskaintzen digu zahartzaroan, urte gutxi batzuetan sikiera zutik irauten duena, suntsipena berandutuaz. Dirudenez, egunero buruan hizkuntzak gobernatzen ibili beharrak gure burmuineko ahalmen batzuk trebatzen ditu, bereziki *kontrol exekutiboa* deritzona, erabakiak hartzeko funtsezkoa den informazioa zein den erabakitzen laguntzen diguna. Baina diodan legez, honi guztiari buruz ikasten hasi baino ez gara egin, ziur naiz ezuste harrigarri asko ditugula zain ikerbide honetan barrena.

### **3. Hizkuntzak buruan gobernatzen**

Hitz egitea oso erreza egiten zaigu, eta horregatik ez diogu ia inoiz erreparatzen, baina gaitasun hori gobernatzen duen makineria kognitiboa oso konplexua da. Hizkuntza bat kudeatzea konplexua izaki, hizkuntza bat baino gehiago dakitenek badute areagoko erronka bat: aukeratzen dituzten hitzak eta esamoldeak zein hizkuntzatakoak diren kontrolatu behar dute, hau da, euskaraz hitz egin nahi dutenean euskarazkoak, eta adibidez gaztelaniaz hitz egin nahi dutenean gaztelaniazkoak.

---

Elebidunek hizkuntzak nola kontrolatzen dituzten aztertu eta aurkikuntza jakingarrienak lortu dituztenen artean, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean lan egiten duen Albert Costa eta haren lankideak ditugu. Esperimentu sorta batean, *hizkuntza-aldaketa* aztertu zuten bereziki: partaide elebidunek irudi batzuk ikusten zituzten ordenagailu-pantailetan, eta irudiok izendatzea zen beren lana. Irudia kolore batean bazetorren (esaterako urdinez margotua) hizkuntza batean izendatu behar zuten, eta beste kolore batean bazetorren (esaterako gorriz) beste hizkuntzan. Hau da, partaide euskaldunen kasuan<sup>12</sup>, txakur baten irudia urdinez agertzen bazen *txakur* izendatu behar zuten, eta gorriz agertzen bazen *perro*. Irudiak modu jakin batean atonduta zeuden: batzuetan, irudi urdin baten ondotik beste irudi urdin bat agertzen zen (aldaketarik ez), baina beste batzuetan, irudi urdin baten atzetik irudi gorri bat zetorren (hizkuntz aldaketa). Partaideek bigarren irudia izendatzeko behar zuten denbora neurtu zuten ikertzaileek, betiere milisegundotan, eta lehenengo egoera (aldaketarik ez) bigarrenarekin (hizkuntz aldaketa) erkatu. Bien arteko aldeak erakusten digu zein den hizkuntza batetik bestera aldatzeko egin behar den ahalegin kognitiboa.

Emaitzek erakutsi zuten orekarik gabeko elebidunek ahalegin handiagoa egin behar dutela hizkuntza ahulagotik hizkuntza nagusira aldatzeko, hizkuntza nagusitik ahulera aldatzeko baino. Efektu hau nolabait paradoxikoa da: jendeak ahalegin handiagoa egin behar du ama-hizkuntzara itzultzeko, bigarren hizkuntzara aldatzeko baino. Aldaketa-kostu *asimetrikoa* deritzo honi, eta uste da hain zuzen ere ama-hizkuntza inhibitzeko egin behar den ahalegin kognitibo handiak azaltzen duela: bigarren hizkuntzako hitzak ekoizteko, ama hizkuntzakoak *zapaldu*, *inhibitu*, *lotu* egin behar dituzte elebidun hauek, eta berriro ama hizkuntzako hitzak ekoizten hasi behar direnean, denbora behar da zapal dutakoa, inhibitutakoa eta lotutakoa desegiteko. Hau zuzena bada, elebidunek hizkuntzak kontrolatzeko, ekoitzi nahi ez duten hizkuntzaren hitz eta egiturak inhibitzeko indarra egin behar dute.

---

<sup>12</sup> Ikerketa hauetan katalan-gaztelania, euskara-gaztelania eta ingelesa-gaztelania elebidunak aztertu zituzten. Jatorrizko lana: Costa, A., Santesteban M., Ivanova I. (2006) How do highly proficient bilinguals control their lexicalization process? Inhibitory and Language-Specific Selection mechanisms are both functional. *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory and Cognition*, 32, 1057-1074.



Baina emaitza horrek beste zerbait jakinarazten digu: elebidunon buruetan, hizkuntza erabili behar denean hizkuntza denak piztu edo aktibatzen direla. Bestela, ez legoke ezer inhibititu beharrik.

Albert Costak, Mikel Santestebanek eta Iva Ivanovak, lan hauen egileek, areago eraman zuten ikerketa. Elebidunik orekatuenek nola jokatzen duten jakin nahi zuten. Horretarako, haurtzarotiko elebidunak aukeratu zituzten, hizkuntza bietan gaitasun altua zutenak, egunero hizkuntza biak erabiltzen dituztenak. Gorago eman dugun inhibitioaren azalpena zuzena bada, orduan elebidun orekatu hauek hizkuntza-aldaketa denboretan eredu *simetrikoa* erakutsi behar dute, hizkuntza bata zein bestea zapaldu edo inhibitzeko antzeko ahalegin kognitiboa egin behar dutelako. Izan ere, horixe bera erakutsi zuten elebidun hauen emaitzek: denbora bera behar zuten A hizkuntzatik B hizkuntzara aldatzeko, eta B hizkuntzatik A hizkuntzara aldatzeko. Beraz, kontuak hemen utzi izan balira, usteko genuke elebidun *simetrik*o eta *asimetrik*oek gauza bera egiten dutela buruan hizkuntzaren ekoizpena kontrolatzeko: lehenik hizkuntza biak aktibatzen dira, eta ondoren erabili nahi ez dena inhibitzen da.

Baina Costak, Santestebanek eta Ivanovak hurrengo aurkitu zutena hori baino harrigarriagoa izan zen: elebidun simetrikokoak beste zerbaitetan ari dira, aldaketak egiteko bidexka berri bat aurkitu dute burmuineko kiribiletan. Izan ere, elebidun hauek hizkuntza-aldaketa simetrikoa egiten jarraitzen zuten baita gutxi ezagutu eta erabiltzen zuten hirugarren hizkuntza baten kasuan! Ez zen beraz hizkuntzaren ikaste-adina, nagusitasuna, ezagutza eta erabileraren maiztasuna aldaketa simetrikoa zekarrena... baina orduan, zer izan zitekeen?

Burmuineko beste alderen bat erabiltzen ari ote dira elebidun orekatu hauek hizkuntza batetik bestera aldatzeko? Elebidunen hizkuntza-kontrolaren oinarri neurala ulertzen hasi baino ez gara egin, baina azken urteotan urrats esanguratsuak egin dira. Esaterako, Costak eta lankideek

aurkitu zuten elebidun goiztiar eta orekatuek *Broca eremua* deritzona erabiltzen dutela ataza hau burutzeko, besteek ez bezala<sup>13</sup>.

Zer da Broca eremua? Gizakion burmuinaren alde berezia da, gainerako primateetan aurkitzen ez dena, hizkuntzaren egitura kudeatzeko funtsezkoa. Broca neurologo frantses ospetsuaren izena darama, hark afasiari buruz egindako ekarpenengatik. Broca eremua konputazioaren ikuspuntutik oso eraginkorra eta azkarra da, dirudienez bereziki egokituta dago egitura konbinatorial eta hierarkikoak azkar konputatzeko, horra zergatik kudeatzen duen hizkuntza. Elebidun goiztiar orekatuok, ikerketa hauen argitan, Broca erabiltzen ikasi dugu hizkuntza batetik bestera salto egiteko, eta behin hori ikasi ondoan, berdin digu salto egiten dugun hizkuntzen adarrak sendoak ala meharrak diren gure buruetan.

Geroago, Clara Martin (BCBL), Mikel Santesteban (EHU) eta Pompeu Fabrako lankideek beste lan garrantzitsu bat kaleratu zuten, elebidun goiztiar orekatuen bestelakotasuna sendotzera etorri dena. Burmuinak lanean sortzen duen elektrofisiologia neurtuta konprobatu zuten elebidun goiztiarrek eta elebidun berantiar desorekatuek zantzu elektrofisiologiko ezberdinak sortzen zituztela ama-hizkuntzatik helduaroan ikasitako hizkuntza ahul batera aldatu eta ama hizkuntzara itzultzean, aldaketa mekanismo guttiz ezberdin bi badirela areago erakutsiaz<sup>14</sup>.

Ikerketa hauek denek gauza bera erakusten digute: hizkuntza biak haurtzaroan ikasi, eskolan landu, eta ia egunero erabiltzen dituzten elebidunak batetik, eta bigarren hizkuntza helduaroan ikasi eta gutxi erabiltzen dutenak bestetik, alde kualitatibo esanguratsuak daudela talde bien artean, gogoaren antolamenduan sustrai egiten dutenak. Elebidun goiztiar egunerokoek estrategia neurokognitibo bereziak garatzen dituzte dakizkiten hizkuntzak kontrolatzeko, Broca eremua erabiliaz. Elebidun berantiar desorekatuek ez dute horrelakorik egiten, eta elebakarrek hizkuntzazkoak ez diren aldaketa-ariketetan darabiltzaten eskuin

---

<sup>13</sup> Jatorrizko lana: Garbin, G., Costa, A., Sanjuan, A., Forn, C., Rodriguez-Pujadas, A., Ventura, N., Belloch, V., Hernandez, M., Ávila, C. (2011). Neural bases of language switching in high and early proficient bilinguals *Brain and Language* 119 (3), 129-13.

<sup>14</sup> Jatorrizko lana: Martin C.D., Strijkers K., Santesteban M., Escera C., Hartsuiker R.J. & Costa A. (2013). The impact of early bilingualism on controlling a language learned late: an ERP study, *Frontiers in Psychology*, 4

hemisferioko eremu berak darabiltzate hizkuntza aldaketarako. Horregatik, hirugarren hizkuntza baterako aldaketa egitean, elebidun goiztiarrek ez dute ahalegin handirik egin behar, baina elebidun berantiarrek ezagutzarekiko proportzionala den ahalegina egin behar dute. Honek ba ote du zerikusirik elebidun goiztiar eta orekatuok hizkuntzak ikasteko omen dugun erraztasunarekin? Hala uste dute ikerlariek, eta etorkizunean ziurrenik argi gehiago jasoko dugu honi dagokionean<sup>15</sup>.

#### **4. Euskalduntzen, zer errez, zer gaitz?**

Hizkuntzak burmuinean du egoitza, eta egoitza hori hizkuntzarako egokitua da. Beste hitzetan esanda, hizkuntza gure espeziearen funtzio biologikoa da, saguzarren ekolokazioaren pareko<sup>16</sup>. Eric Lenneberg biologoak 1967.ean aldarrikatu zuen hizkuntzaren garapenak aro kritiko bat zeukala, beste hainbat funtzio biologikoen antzera. Ordutik, baieztapen honen aldeko ebidentzia pilatzen joan da, eta ez da zalantzan jartzen: haurtzaroan hizkuntzaz jabetzen ez den gizakiak, ezin du hizkuntza garatu helduaroan. Baina hizkuntza garapen arruntak ez du zertan elebakar izan behar, eta garapen leihoak irekita dirauen artean, hizkuntza gehiago ikas daitezke. Behin hizkuntza baten jabe garenean ikasten diren bigarren eta hirugarren hizkuntzak lehenengoa ikasi genuen legez ikasten ote diren eztabaida gaia da gure alorrean, eta dirudienez, orain artean dakigunagatik, bietatik dago, baina hiztun garela hizkuntza berri bat ikasteari ekiten diogunean, gure burmuinak egiten dituen aukerak ez dira beti jaiotzetiko hizkuntzarekin egin zituen berak. Neurri handi batean, hor datza hizkuntza berriak ikastean zeri esaten diogun "errez" eta zeri "gaitz".

Har dezagun Gabrielen kasua; lehen-hizkuntza gaztelania izan eta hamabi urterekin euskara ikasten hasten den mutil koskorraren adibidea. Zer zen erreza Gabrielentzat? Zer zen gaitz? Egin ditugun ikerketen emaitzak fidagarriak badira, badugu horri buruz zer esanik. Eta aurkitu duguna ez

---

<sup>15</sup> Ikus Laka Itziar (2013) How do bilinguals control their languages? *Mapping Ignorance* <http://mappingignorance.org/2013/11/18/how-do-bilinguals-control-their-languages/>

<sup>16</sup> Gai honi buruz, ikus Laka, Itziar (2008) "Hizkuntzaren sustrai biologikoen inguruan" *Ekaiak: Euskal Herriko Unibertsitateko zientzi eta teknologi aldizkaria*, 21 141-161.

dator bat euskarari buruzko gogoetak egin ohi dituzten aditu batzuen iritziekin.

Adibidez, inoiz irakurri izan dut, hizkuntza aditu baten eskutik, euskarak duen zailtasunik handiena aditz morfologia dela, eta morfologia horretan komunztadura markak. Egia da telekomunikazio-ingeniaritzaren ikuspuntutik euskarak sor ditzakeen seinaleak erredundantzia maila altua daukala, birritan errepikatzen baitu behin soilik esan daitekeena, hara: *zuk niri hitza eman didazu*. Birritan esaten dut nor den hemen egilea (zu**K**, did**A**zu) birritan nor den jasailea (ni**RI**, di**DA**zu), birritan gaia (hitza, **D**idazu). Hizkuntza gutxik erakusten dute izen sintagmei itsatsita datorren kasu morfologia, eta aldi bereaz aditzeko komunztadura markak. Horretan, euskara bai da pixka bat bitxia.

Beraz, esaldiko partaideak markatzeko bide bi dauzkagu, kasua eta komunztadura. Bietatik zein da euskara ikasten dabilenarentzat zailago? Askok egingo luketen posturaren kontra, ez dira aditzaren komunztadura markak, kasu morfologia baino. Gure emaitzen arabera, euskara ikasten ari direnek oztopo handien duten euskararen ezaugarria *ergatibotasuna* da, ez aditz morfologia.

Euskararen gramatikaz jabetzeko egon daitezkeen zailtasunak ikertu izan ditugu azken urteotan. Jakin nahi dugu ia lehen eta bigarren hizkuntzaren arteko gramatika-aldeek eragina ote duten bigarren hizkuntza ikasteko. Helburu horrekin, azken urteotan euskaldun mota bi ikertzen aritu gara: jaiotzetikoak eta haurtzaroan hiru edo lau urterekin euskara ikasi dutenak. Gure esperimientuetan parte hartzen dutenerako hogeitabost urte arteko heldu gazteak dira, denak gaitasun altukoak (EGA edo antzeko maila dutenak). Ikertu ditugun hizkuntza ezaugarrien artean, orain axola digutenak kasu morfologia eta aditz komunztadura<sup>17</sup>.

Jakina denez, euskara eta gaztelania aldendu egiten dira funtsezkoa den gramatika-ezaugarri bati dagokionean: euskara hizkuntza *ergatiboa* da, eta gaztelania hizkuntza *nominatibo-akusatiboa* deritzona. Hona adibide batean erakutsita:

---

<sup>17</sup> Jatorrizko lana: Zawiszewski, A., Gutiérrez, E., Fernández, B. and Laka, I. (2011). Language distance and nonnative language processing. Evidence from event-related potentials. *Bilingualism: Language and Cognition* 14 (03), 400-411.

- (1) a. *emakumea etorri da* c. *ella ha venido*  
b. *emakumeak emakumea ikusi du* d. *ella la ha visto*

Gaztelaniaz forma bera duten osagai biek ((c) *ella*, ((d) *ella*), forma ezberdina dute euskaraz (*emakumeak*, *emakumea*); eta alderantziz, euskaraz forma bera duten osagai biek ((a) *emakumea*, (b) *emakumea*) forma ezberdina dute gaztelaniaz (*ella* eta *la*). Euskara eta gaztelania dakienari errez azaltzen zaio hau, baina gaztelania bezalako hizkuntzak bakarrik ezagutzen dituztenek neke handiak hartzen dituzte euskararen sistema ergatiboa ulertzeko<sup>18</sup>.

Gure ikerketek erakusten dute gaitasun altuko euskaldunek berdin prozesatzen dituztela aditz morfologiako adibideak, euskara jaiotzetik zein haurtzaroan ikasi, eta burmuinak sortzen duen seinale elektrofisiologikoa berdina dela talde bietan, bai zuzenak zein okerrak diren adibideak konputatu behar dituztenean. Aldiz, nork kasuari (edo hizkuntzalaritzaren terminologian ergatibo kasua deritzonari) begiratzen badiogu, jaiotzetiko hitzunek eta haurtzaroan (hiru edo lau urterekin hasita) ikasi zutenek ez dute berdin jokatzeko. Ariketa batean, zuzen eta oker zeuden perpausak antzeman behar zituzten; akatsak aditz morfologiazkoak zirenean partaide denek antzera jokatzeko zuten, baina akatsak nork kasuari lotuta zeudenean, estatistikoki esanguratsua zen akats kopuru handiagoa egin zuten jaiotzetiko hitzunik ez zirenak. Horri loturik, azken talde honek nork kasuaren urraketa gramatikalen aurrean ez zuten erakutsi jaiotzetiko hitzunek erakusten zuten soslai elektrofisiologiko bera. Bestela esan, aditz komunztadura jaiotzetiko hitzunik bezala bilduta dago hitzun hauen buruetan, baina ergatibo marka txikiak, aldiz, beste itxuraketa bat hartzen du jaiotzetikoak ez diren gaitasun altuko hitzun hauengan. Beraz, euskara ikasten ari den gaztelaniadun edo frantsesdun batentzat behintzat, aditz morfologia ez da gainditu beharreko oztoporik zailena. Dirudienez,

---

<sup>18</sup> Euskara eta munduko beste hizkuntzen ezaugarri tipologikoetaz ikus Fernández, Beatriz eta Ortiz de Urbina, Jon (2007). *Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan* Bilbo: UEU.

oztoporik zailena hitzik txikiena da, **k** hitza, ergatiboaren zantzua<sup>19</sup>. Hau honela bada, euskara irakasteen ergatibotasunarekin bereziki lotuta doazen ariketak gehiago lantzea komeni litzateke, ikasleek euskal gramatikan funtsezkoa den ezaugarri hau eredu egokian eta ahalik lasterren automatiza dezaten.

## **5. Erabileraz, hizkuntzen aktibazioaz, kartel elebidunez.**

Euskararen egoerari buruzko azken inkestek erakutsi dute euskararen ezagutza zabaldua dagoela, batik bat hezkuntza sistemari esker. Ezagutza oso zentzu zabalean erabiltzen dut hemen, euskaraz egindako galdera errez bat ulertzeko gaitasuna, eta gutxi gora behera ulertua izateko moduan erantzuteko gaitasuna barne direla. Gure egungo kezka, beraz, ez da Gabriel Arestik bere bizitza guztian zehar sorbaldean eraman zuen zama astun hura, hizkuntzaren gutxieneko biziraupena, euskara bizi ala hil. Horren ondoko erronka da gurea: behartutako elebitasun egoera hau ez dadila beti gaztelaniaren alde erabaki.

Honi buruz asko idatzi eta idatziko da; ikuspuntu askotatik begiratu behar diogu arazoari, eta alor ezberdinetako iritziak modu koherente batean bilbatu behar ditugu, kexu eta auhen antzuetatik egiteetara igarotzeko garaia baita. Dakardan bada nire ikuspuntua, buru barrutikoa.

Lehenago ikusi dugunez, elebidunok etengabe aktibatzen ditugu gure hizkuntza biak<sup>20</sup>. Hizkuntzen aktibazio hau hitzak aurkezten zaizkigun une guztietan gertatzen da, berdin dio pertsona batek zer bait esan edo galdetzen digun, edo kaletik goazela txartel bat ikusten dugun, berdin dio zein hizkuntzatan hitz egiten diguten edo irakurtzen dugun, hizkuntza biak pizten dira gure buruetan. Ondoren, egoerak eskatzen duen hizkuntza aukeratu behar dut, eta erabiliko ez dudana inhibititu elebidun desorekatua banaiz, edo hizkuntza aldaketa mekanismo berezia erabili elebidun orekatua banaiz.

---

<sup>19</sup> Honen inguruan, ikus Laka, Itziar (2014) Hitz ñimiñoen kasu harrigarria *Zientzia Kaiera*. <http://zientziakaiera.eus/2014/10/21/hitz-niminoen-kasu-harrigarria/>

<sup>20</sup> Elebidun hitza erabiltzen dudanean, barruan sartzen ditut oraingoan hirueledunak, eta laueledunak, egingo dudana argudiobiderako kontuak berdinak dira-eta.

Kontuak honela, *berebiziko garrantzia dauka zein den elebidunaren begiek jotzen duten lehenengo hizkuntza*. Elebidunon begiek etengabe jotzen dituzte hitzak eta esaldiak Euskal Herriko kaleetatik gabiltzala. Horietako gehienak (ondo legoke neurketa zehatz bat bagenu, ez dut uste hori eginda dagoenik) gaztelaniaz edo frantsesez. Hizkuntza bietan idatzitakoak gehiago dira orain iraganean baino, batez ere Elkartea Autonomoan, ez hainbeste Ipar-ekialdean eta Nafarroan. Azkenik, gutxiagotan bada ere, euskaraz bakarrik idatzitakoak ikusten ditugu. Paisai honen aurrean elebidunaren buruak zer egiten du?

Elebidun desorekatu baten kasua hartuko dugu: lehenengo hizkuntza gaztelania eta euskara ikasten ibili ondotik hitz egiteko moduko maila lortu du, neke handiz. Gabriel dei dezakegun hiritar honen kasuan, kartel elebidunean hizkuntzak nola aurkezten diren guztiz garrantzitsua da. Begiak lehenengo jotzen duen hizkuntza gaztelania<sup>21</sup> bada, gaztelania aukeratu eta euskara inhibituko du Gabrielen burmuinak, milisegundo gutxitan, ezertaz ohartu orduko. Demagun gure Gabriel hau euskaltzale sutua dela, eta euskaraz bizi nahi duela. Gaztelaniaz irakurtzen hasi dela konturatu eta beherago mugitzen ditu begiak, ia euskarazko hitzik aurkitzen ote duen. Ordurako segundoak igaro dira, buruaren erlojuan hilabeteak, eta berariaz inhibititu beharko du gaztelania, txartelaren euskal hitzak eta esaldiak ulertuko baditu. Gabrielen burmuinak gaztelaniaren alde egin du, hori izan baita ikusi duen lehenengo hizkuntza. Alderantziz balitz, ikusitako lehenengo hitzak euskarazkoak izan balira, Gabrielen buruak gaztelania inhibituko luke, euskaraz irakurri ahal izateko, eta lehenago ikusi dugun bezala, gaztelania maiz inhibitzea da Gabriel bezalako elebidun batek orekara heltzeko duen bide eta esperantza bakarra.

Beraz, euskara ikasten ari diren hiritarrei laguntzeko biderik eragingarriena *euskara lehenengo* araua da. Euskara lehenengo ez duten kartel eta oharretan alferrik da elebitasuna, horrek ezin du diglosia gainditzen laguntzen. Izan ere, kontrakoa egiten du; elebidun guztiok, orekatu zein desorekatu euskara ez aukeratzera edo inhibituzera eramaten gaituelako. Hau dena, ohar gaitezen, hitz egin gabe gertatzen da, isilean, gure

---

<sup>21</sup> Edo frantsesa, noski, izen bat zein bestea erabil daiteke hurrengo lerroetan.

buruetan, egunero, etengabe. Hizkuntza paisaiak euskaraz hitz egin behar digu lehenengo, beti eta salbuespenik gabe euskarak erabilera aurrera egingo badu. Gabrielelek euskaraz bizi nahi badu, elebidun izateak ez dio hori oztopatzen, hiriko paisaiak euskaraz hitz egiten dion artean. Beste edozein antolamenduk elebitasun diglosikoa sakontzera garamatza.

Gabriel Arestik eta harekin lan egin zuten beste hainbatek XX. mendeko erronkari aurre egin zioten, batasuna eraikiaz eta euskara noranahikotuz. XXI. mendeko erronka erabilera da, egiazki geure buruetan gertatzen denetik banatu ezina den erabilera. Erabakirik egokienak hartu ahal izateko ezagutza behar dugu, elebitasunari buruzko ezagutza punta-puntakoa, eta ezagutza horretan oinarrituz garatzen den hizkuntza politika.

Itziar Laka

[Itziar.laka@ehu.es](mailto:Itziar.laka@ehu.es)

<http://www.ehu.eus/HEB/>